

Euskararen erabileran, ahozko gaitasunean eta euskararekiko jarreretan eragiten

Irakasleentzat ikastaroak
2019-2020 ikasturtea

Gaiak	<p>Erabileraren ontzia bete: Euskararen erabileran eta jarreretan eragiteko estrategiak eta tresnak</p>
	<p>Kultur transmisiorako proposamenak: Kultur transmisiotik euskarazko bizipenetara</p>
	<p>Gurasoak irakasleen norabide berean: Familia bidezko transmisioan eragiteko proposamenak</p>
Arlo berria	<p>Hizkuntza trataera integrala: Euskara eta ahozkoa erdigunean jarrita, hizkuntzen trataera integrala lantzen</p>

Aukerak	<p>Ikastaroa Irale bidez egiteko aukera dago: izen-emateko epea apirilaren 1etik 15era</p>	Oinarrizkoa
		Garapena
	<p>Saio puntuala</p>	Aurkezpena
		Jarraipen saio puntuala

Ebetetik azken urteetan landu ditugun eduki eta adibide guztiak ondoko gunetan aurkitu ditzakezue:

www.ebete.eus/hezitzaile-berritsuak

Zein da zuen eskolarako aukerarik egokiena?

Gurekin ikastaroa 2018-2019 ikasturtean egin baduzue

Jarraipen saio puntuala	2019-2020 ikasturtera begira lantzen ari garen tresnak aurkeztea. Irakasle taldean aldaketak badaude, irakasle berriak kokatzea eta lehendik jarraitzen dutenen ideiak freskatzea.
Oinarrizko ikastaroaren garapena	Oinarrizko ikastaroa egingo baduzue, jarraipena ematea. Lehenengo ikasturteko oinarriak gogoraraztea, adibide gehiago ikustea, eta batez ere ikasleekin egiteko saiakerak adostea eta tresnak nola planifikatu aztertzea.

Gurekin ikastaro bi ikasturtez egin baduzue, oso aproposa da jarraipen saio puntuala antolatzea. Oinarrizko ikastaroa soilik egin baduzue, berriz, jarraipena eman eta bidea garatzera gonbidatzen zaituztegu.

Gurekin ikastaroa 2018-2019a baino lehenago egin bazenuten

Jarraipen saio puntuala	Ordutik hona garatu ditugun tresnak aurkeztea. Irakasle taldean aldaketak egon badira, irakasle berriak kokatzea eta lehendik jarraitzen dutenekin ideiak freskatzea.
Oinarrizko ikastaroaren garapena	Lehen landutako edukiak gogorarazteaz gain, tresna eta estrategia berriak aurkeztea eta horiek praktikara eramateko saiakerak adostea.

Azken ikasturteetan hainbat tresna garatu ditugu. Tresna zehatzak dira, praktikara eramateko prestatuak. Besteak beste: ohiko egoeretan jarduerak egokitzea LHn eta DBHn, elkarrizketa itxiak LHn eta DBHn, txokoetarako jarduerak HHn, patio garairako jarduerak eta abar.

Gurekin ez baduzue inoiz ikastarorik egin

Formazio saio puntuala	Oinarrizko estrategiak eta tresnak aurkeztea. Ikastaroa egin edo ez erabakitzeko abiapuntu egokia izatean da.
Oinarrizko ikastaroa	Eduki nagusienak lantzea, ikasleekin erabiltzeko hainbat estrategia eta tresna aurkeztea, eta horiek erabiltzera gonbidatzea.

Ez baduzue ikastaroa inoiz egin, ziur zuen interesekoa izango dela. Ikasleen euskararen erabileran eragiteko oinarriak lantzeaz gain, ahozko gaitasuna lantzeko tresna eta proposamen zehatzak aurkeztuko dizkizuegu. Ezagutu ezazue!

Aurkezpena

ebete hizkuntza-zerbitzuetatik haur eta gazteen euskararen erabileran eta hizkuntza-ohituretan eragiteko bideak eta tresnak lantzen ditugu. Horien barruan garrantzia handia dute irakasleen lanari begira garatutakoek.

Azken urteetan hainbat eta hainbat ikastetxetan gabilta irakasleen formazioa lantzen. 2018-2019 ikasturtean, adibidez, 45 ikastetxe baino gehiagotan egin ditugu ikastaroak eta saio puntualak.

Ikastaroek ikuspegi praktikoa dute, eta eguneroko lanerako tresnak proposatzeko ahalegina egiten dugu. Hori dela eta, urtez urte tresnak eta adibide berriak lantzen eta eskaintzen jarraitzen dugu.

2018-2019 ikasturtean lehen aldiz arlo berri bati ere heldu diogu: Hizkuntza trataera integrala. Gai berria da guretzat. Ohiko orduan, irakasle eta ikastetxeentzat praktikoa izan daitezkeen proposamenak lantzea da gure helburua arlo horretan ere. Gai berria denez, urratsez urrats edukiak eta proposamenak garatzen ari gara.

Zuen ikastetxean gai hauen inguruko formazioa egin nahi baduzue, hainbat aukera dituzue. Ondorengo orrietan edukiei eta antolaketari dagozkion aukera ezberdinak aurkezten dira. Baina hoberena zuzenean gurekin harremanetan jartzea da. Gurekin harremanetan jartzen bazarete, aukera ezberdinen ezaugarriak azalduko dizkizuegu eta zuentzat egokiena ikusten duzuen aukeratu ahal izango duzue.

Aukerak

<i>Ikastaroak Irale bidez egiteko urratsak</i>	<i>Ikastaroak edo saioak Iraletik kanpo egiteko urratsak</i>
<p>10 orduko ikastaroak dira. Ohikoena bi orduko bost saio egitea da, baina beste aukera batzuk ere egon daitezke.</p> <p>Gutxienez 9 irakasleko taldea osatu behar da, baina klaustro osoak parte hartzea oso egokia da. Ikastetxean bertan egiten dira saioak.</p> <p>Irale bidez oinarrizko ikastaroa egin daiteke baita ikastaro horren garapena ere. Hau da: bi ikasturtez gai bera lantzeko aukera baduzue.</p> <p>Ikastaroa egiteko interesa baldin baduzue:</p> <p style="padding-left: 20px;">- <i>ebete</i> <i>hizkuntza-zerbitzuekin</i> harremanetan jarri informazio osatuagoa jasotzeko eta zalantzak argitzeko: info@ebete.eus helbidera idatzi dezakezue edo 660245539 telefonora deitu.</p> <p style="padding-left: 20px;">-Ikastaroa egingo duten irakasleek izena eman behar dute irakasle.net web gunearen bidez apirilaren 1etik 15era bitarte.</p> <p style="padding-left: 20px;">-<u>Oso garrantzitsua:</u> ikastaroa egiteko asmoa baduzue eta izena ematen baduzue, ez itxaron Iraletik erantzuna jaso arte. Lehenbailehen jarri harremanetan gurekin. Ikastaroa antolatze oso garrantzitsua da lehenbailehen jakitea nork eta noiz egin nahi duen.</p>	<p>Hainbat aukera daude iraupena eta ezaugarriei dagokionez:</p> <p style="padding-left: 20px;">-Aurkezpen saioa: bi orduko saio bakarra. Oinarri nagusienak aurkezten dira eta hainbat adinbide eta tresna ikusten dira, baina edukietan sakondu gabe.</p> <p style="padding-left: 20px;">-Jarraipen saio puntualak: aurretik ikastaroa egin izan duten ikastetxeetarako aproposa. Urtean zehar saio bat edo bi izan daitezke, lehendik landutakoa erreparatzeko, urrats berriak adosteko, edota adibide eta tresna berriak aurkezteko egiten dira.</p> <p style="padding-left: 20px;">-Ikastaroak: bai oinarrizkoak baita garapena ere. Iraupena eta ezaugarriak ikastetxeko arduradunekin adosten dira.</p> <p>Saioren bat edo ikastaroa bide honetatik egiteko interesa baldin baduzue:</p> <p style="padding-left: 20px;">- <i>ebete</i> <i>hizkuntza-zerbitzuekin</i> harremanetan jarri informazio osatuagoa jasotzeko, zalantzak argitzeko eta ezaugarriak zehazteko: info@ebete.eus helbidera idatzi dezakezue edo 660245539 telefonora deitu.</p> <p style="padding-left: 20px;">-Aurrekontu bat aurkeztuko dizuegu. Ikastaroaren edo saiaoren ondoren, faktura aurkeztuko da ordainketa egin ahal izateko.</p> <p style="padding-left: 20px;">-<u>Oso garrantzitsua:</u> ikastaroa egiteko asmoa baduzue lehenbailehen jarri harremanetan gurekin. Saioak antolatze oso garrantzitsua da lehenbailehen jakitea nork eta noiz egin nahi duen.</p>

Ikastaroak Irale bidez zein Iralez kanpo egin, eduki zehatzak eta ezaugarriak ikastetxearen aukeretara eta nahietara egokitzen dira.

Besteak beste honakoak kontuan hartzen dira:

- **Ikasleen adina:** Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako edo Bigarren Hezkuntzako ikastetxea den.
- **Testuinguru soziolinguistikoa:** testuinguruan euskararen ezagutza eta erabilera nolakoa diren.
- **Ikastaroan klaustro osoak parte hartuko duen edo irakasle batzuk soilik egingo duten.**
- **Ikastetxeko arduradunek zein arlo edo gai lantzea ikusten duten lehentasunezkoa:** gurasoei begira lan egin nahi den, ikasleen eskararen erabilera edo jarrerak landu nahi diren, edo kultur transmisioaren gaiari heldu nahi zaion.
- **Ikastetxean ikastaroa lehenengo aldiz egiten den edo lehendik egindakoari jarraipena** eman nahi ote zaion: hainbat ikastetxeren kasuan, behin ikastaroa egin ondoren, gaiari jarraipena eman nahi izaten zaio.

Gaiak

Erabileraren ontzia bete: Euskararen erabileran eragiteko estrategiak eta tresnak

Helburuak

- Irakasleei haurren eta gazteen artean euskararen erabileran eragiteko estrategia eta tresna zehatzak proposatzea.
- Proposatzen diren estrategia eta tresna horiek frogatzea.
- Aurrera begirako bideak eta estrategiak zehaztea: *Erabileran eragiteko planak adostea (aukerakoa).*

Eduki nagusiak

Abiapuntua:

- Hizkuntza-jokabideak
- Eskolaren mugak
- Eragiteko bideak

Formazio saioen abiapuntua izaten da ikastetxetik zein hizkuntza-jokabide sustatu nahi diren aztertzea eta adostea, eta, jokabide horiek sustatzera begira eskolaren mugak zeintzuk diren ikustea.

Ikastetxeetatik ikasleen euskararen erabileran eta euskararekiko jarreretan eragin nahi izaten da, baina, horren oinarrian hizkuntza-jokabide zehatz batzuk daude. Zein hizkuntza-jokabide sustatu nahi ditugu ikasleen artean? Nola nahiko genuke beraien artean egitea? Eta kalean dabiltzanean? Telebista ikusterakoan? Eta abar. Zein muga ditu ikastetxeak jokabide horietan eragiterakoan, eta zein dira aukerak edo garatu ditzakeen bideak?

Oinarri nagusiak:

- Baiezkoaren dinamika
- Hizkuntzarekin harremana
- Erabiltzeko inizatiba

Hiru dira ikastaroaren oinarri nagusiak.

Batetik, baiezkoaren dinamika. Irakasleok nahi dugu ikasleek euskara gehiago erabiltzea, gurea da helburua. Beraz, ardura guk hartu behar dugu eta guk lagundu behar diegu ikasleei euskara gehiago erabil dezaten. Euskara erabiltzearen edo ez erabiltzearen ardura ez da ikasleena, irakasleon zeregina da ikasleei norabide horretan laguntzea.

Bestetik, gure ikasleek euskararekin nolako harremana duten aztertuko dugu. Euskararekin duten harremanaren arabera, landu beharreko helburua eta erabili daitezkeen estrategiak ezberdinak izango dira. Bai euskararen erabilerari dagokionez baita jarrerari dagokionez ere, ez da berdina eta modu berean landu behar euskara etxetik, kaletik eta eskolatik jasotzen duten ikasleen artean eta euskara eskolatik soilik jasotzen duten ikasleen artean.

Hirugarren oinarria, erabiltzeko inizatiba izango da. Euskara gehiago erabiltzen lagundu nahi diegunez, helburu lorgarriak eta neurgarriak jarri behar ditugu. Nahia eta helburua ezberdindu behar ditugu. Euskara asko, askorekin eta egoera askotan erabiltzea nahi dugu, baina hori helburu zehatzetara eta lorgarrietara ekarri behar dugu. Horretarako, ikasleen euskara erabiltzeko inizatiba izango da abiapuntua: noiz ematen dute euskaratik gaztelaniarako pausoa, eta, noiz lortzen dugu guk beraiek gaztelaniatik euskarara pasatzea. Hori aztertuko dugu eta horrek lagunduko digu helburuak zehazten.

Landuko diren eta frogatuko diren bideak:

- Erabileran eragiteko estrategiak eta tresnak
- Jarreretan eragiteko proposamenak
 - o Jarreretan eragiteko dinamika
 - o Euskararen aldeko kanpainak
- Jarduerak egokitzea begirako irizpideak eta proposamenak
 - o Ohiko jarduerak egokitzea
 - o Ahozkoa lantzeko jarduerak sortzea
 - o Elkarrizketa itxien erabilera
- Eguneroko jardunerako mezuak

Lau bidetatik egingo dira proposamenak eta proposamen horiek frogatzera gonbidatuko dira irakasleak.

Gelan eta gelaz kanpo erabileran eragiteko estrategiak eta tresnak proposatuko dira. Hau da, ikasleekin ari garenean euskara gehiago erabiltzen laguntzeko estrategiak eta tresnak.

Ikasleen jarreretan eragiteko hainbat proposamen egingo dira. Kasu honetan, irakasleek euskaraz gehiago egiten laguntzea baino, ikasleek beraien kaxa euskara gehiago erabiltzen saiatu daitezten landuko da. Horretarako, jarreretan eragiteko dinamikak aurkeztuko dira (oinarriak eta jarduerak) eta euskararen aldeko kanpainak aztertuko dira (hizkuntza-helburuei dagokionez eraginkorrak izan daitezten).

Erabileran eragiterako garaian tresna lagungarri eraginkorra da *Jarduerak egokitzea*: hizkuntza ahoz erabiltzea ezinbesteko bihurtzen dugu jardueran bertan. Ahozkoa lantzea oinarri duten jarduerak sortu daitezke edo ohiko jardueretan aldaketak egin ahozkoari lekua egiteko. Proposamen zehatzak eta hainbat adibide aurkeztuko dira.

Bide lagungarria da *Elkarrizketa itxiak* erabiltzea: simulazioak, esketxak, errutina linguistikoak... Eginda ematen zaizkien elkarrizketak dira, eta bi helbururekin erabil daitezke: esamolde edo estruktura berri batzuk lantzea eta beraien artean erabiltzea, edo gaizki erabiltzen diren erdu batzuk zuzentzea.

Eguneroko jardunerako mezu egokiak ere proposatuko dira. Argi dago *egin euskaraz!* moduko esamoldeek ez dutela laguntzen helburuetara iristen, eta, are gehiago, kontrako eragina ere izan dezakete. Baina, bestalde, gaztelaniaz entzundakoan ikasleei ezer ez bazaie esaten, ikasleek ulertu dezakete irakasleei ez zaiela axola zein hizkuntzatan ari diren. Egoera horietarako irakasleek erakutsi beharreko jarrera landuko da ikastaroan.

Erabileran eragiteko plana adostea:

Landutako oinarriak eta egindako frogak oinarri hartuz, irakasleekin erabileran eragiteko planak adostuko dira. Bertan jasoko da, ikasleen euskararen erabileran eta euskararekiko jarreretan eragitera begira, ikastetxean zer eta nola egingo den ikasturte oso batean zehar.

Kultur transmisiorako proposamenak: Kultur transmisiotik euskarazko bizipenetara.

Helburuak

- Ikasleen euskararekin duten harremana eta euskararekiko jarrerak lantzerantz begira kultur transmisioa tresna eraginkor moduan nola erabili daitekeen ikustea.
- Ikuspegi orokor batetik jarduera zehaztetara bidea egitea:
 - Euskal kulturari buruzko nolako irudia eta zein balio transmititu nahi diren aztertzea.
 - Gizarteak eskaintzen dizkigun lantresnetan oinarrituz, kasu praktikoak aztertzea, proposamenak egitea eta jarduerak frogatzea.

Eduki nagusiak

Abiapuntua:

Euskal kulturaren transmisioa hainbat ikuspegitatik aztertu eta landu daiteke. Ikastaro honetan proposatzen den bidea honakoa da:

- Euskal Kulturaren transmisioa tresna eraginkorra da ikasleek euskararekin duten harremana indartzeko eta bide horretatik euskararekiko jarrerak lantzeko.

Ikastaro honetan, beraz, ez da lantzen ikasleek euskal kulturako gutxieneko ezagutzak zein beharko luketen, ikasleek euskararekin duten harremana indartzeko euskal kultura nola erabili daitekeen baizik. Ikastaroak izaera praktikoa du: testuinguruan kokatuta eta oinarri batzuen arabera hainbat proposamen egiten dira.

Oinarri nagusiak:

- Hizkuntzarekin harremana
- Erabileran eragiten duten faktoreak
- Aurre ezagutza, bizipenak eta gaur egun ikastetxetik egiten dena

Euskararekin duten harremanak hizkuntza horrekiko jarrerak baldintzatzen ditu. Euskararen ezagutza eta erabilera handia den testuinguruetan euskararekiko harremana modu batekoa da eta euskarak leku txikiagoa duen testuinguruetan harremana oso bestelakoa da. Baina testuinguru berean ere ikasle guztiek ez dute euskararekiko harreman bera.

Hori izango da ikastaroaren abiapuntuetako bat: Nolako harremana dute gure ikasleek euskararekin? Nolakoa izatea nahi genuke? Zein irudi eta balioekin lotzen dute euskal kultura? Zer ezagutzen dute? Nolako bizipenak dituzte?

Honek lotura zuzena du *Erabileran eragiten duten faktoreekin*. Soziolinguistika klusterrak egindako ikerketan (Erabileraren GPSa, 2009), gazteen euskararen erabileran zein faktorek eragiten duten aztertzen da. Horien artean daude euskararekiko gizarte pertzepzioa (euskara zein balioekin lotzen duten), egoera soziolinguistikoarekiko gizarte pertzepzioak (euskararen egoerarekin zein ikuspegi duten), kontsumo eskaintza, eta erreferenteak. Horiek guztiak kultur transmisioarekin lotura zuzena dute: kultur ikuspegitik lan egokia egiten bada, faktore horietan guztietan modu egoki batean eragin dezakegu.

Ikuspegi orokorretik proposamen zehatzetara bidea egiteko, ikasleek eta irakasleek euskal kulturarekiko duten aurre-ezagutza landuko da, baita zein balio eta nolako bizipenekin lotzen duten ere. Bestalde, ikastetxean gaur egun zer eta nola egiten den ere aztertuko da, eta egiten den hori transmititu nahi denarekin koherentea den eta zein indargune edo hutsune dituen.

Hortik hainbat jarduera proposamen egingo dira: eguneroko errutinekin lotuak, berariaz sortutako jarduerak, jaialdietan erabil daitezkeenak daitezkeenak, herriarekin lotutakoak, eta abar.

Gurasoak irakasleen norabide berean: familia transmisioan eragiteko proposamenak.

Helburuak

- Gurasoak ikastetxearen norabide berean aritzea lortzea: bai hizkuntza-transmisioari dagokionez, baita haurren eta gazteen euskararekiko jarreretan eta jokabideetan eragiteari dagokionez ere.
- Horri begira, gurasoek elebitasunari (eta eleaniztasunari buruz) zein kezka izaten dituzten ikustea eta mezu egokiak zein diren aztertzea.
- Kezkak argitzeaz gain, gurasoak irakasleon norabide berean aritu daitezen ikastetxetik zein mezu eman nahi zaizkien aztertzea eta lantzea.
- Mezuak emateko bideak zein diren ikustea eta lagungarri izan daitezkeen tresnak aztertzea.
- Ikastetxerako plan bat diseinatzea (*aukerako gaia*): Guraso euskaldunentzat zein erdaldunentzat zuzendutako plan bat diseinatzea eta abian jartzeko eman beharreko urratsak adostea.

Eduki nagusiak

- Gurasoen kezka nagusiak ikusiko dira modu sinple eta argi batean eta ikastetxeak gurasoei eman beharreko mezu nagusiak zein diren ere landuko da:
 - o Mezu nagusiak: elebidun orekatuak izatera iristearen ardura ez utzi soilik eskolari, hizkuntza-jarreretan eta jokabideetan eragin gehien gurasoek dute, eta abar.
 - o Kezka nagusiak: Nola lagundu eskolako lanekin euskaraz ez badakit? Euskara ondo ez badakit erabili behar al dut? Ikasiko al dute ondo gaztelaniaz? Lagunekin gaztelaniara jotzen badute zer egin? Seme-alabei euskaraz egiten diegu baina gure artean gaztelaniaz egiten dugu, zer eragin izan dezake horrek?, eta abar.
- Udalek eta beste hainbat erakundek transmisio programen barruan zer eskaintzen duten aztertuko da. Horietatik eskaintzen diren tresnak erabiltzeko aukera dagoen kasuetan, nola erabili ere landuko da.
- Gurasoei mezuak noiz eta nola eman eta jarduerak noiz eta nola aurkeztu ere landuko da: guraso bileretan, banakako bileretan edo harreman informagoetan, eskuliburuen edo oharren laguntzaz, eta abar.
- Hori guztia plangintza batean jasoko da, ikastetxearen nahietara eta aukeretara egokitzen den plangintza. Ikastaroan landutakoa ikastetxeko jardunean erraz txertatzea bideratu nahi da plangintzaren bidez.

Hizkuntza trataera integrala: Euskara eta ahozkoa erdigunean jarrita, hizkuntzen trataera integrala lantzen

Hizkuntza Trataera Integralaren ikastaroa ere Irale bidez egin daiteke, baina ezaugarri bereziak ditu: ordu kopurua, antolaketa eta abar. Arlo horretan interesa izan ezker, jarri gurekin harremanetan argibideak eman ahal izateko eta aukerak aztertzeko.

Helburuak

Ikastaro honen helburu nagusiak honakoak dira:

- Ikastetxeetan Hizkuntza Trataera Bateratuaren gaia garatzeko irakasleei formazioa eskaintzea eta oinarriak jartzen laguntzea.

Norabide horretan, honako helburu hauek landuko dira:

- Euskara eta ahozkotasuna erdigunean jartzea
- Heziberri eta Hizkuntzen Europar markoa oinarri hartzea
- Ikuspegi komunikatiboa ardatz hartzea
- Materiala lantzen laguntzea

Ezaugarriak eta eduki nagusiak

Ezaugarri bereziak dituen ikastaroa da. Hots, irakasleei begirakoa izan arren, ez zaio soilik irakaslegoari baliabide berriak edo arlo honetan lan egiteko gaitasuna eskaini nahi, baizik eta ikastetxeen lan egiteko moduetan ere eragin nahi da. Horregatik hain zuzen ere egokiro landu behar dira hainbat ezaugarri:

- Talde eragilea eta irakasle taldea
- Parte hartzailea eta praktikara bideratua
- Ikastetxeen ezaugarrietara egokituz
- Berritzegunearekin koordinazioa

Ikastaroa garatzeko, *Talde eragile* bat osatuko da eta *Irakasle taldearekin* ere lan egingo da. Alegia: ez da ikastetxe ezberdinetako irakasle solteekin lan egiterik aurreikusten, ikastaroa ez baita soilik irakasle bakoitzaren formazioa begirakoa. Aldiz, ikastetxeetako klaustroekin edo gutxienez talde nahiko handiekin lan egitea bilatuko da, landutakoak eskolaren jardunean eragina izan dezan. Horri begira, bi mailatako formazioa landuko da: *Talde eragilea* eta *Irakasle taldea*.

- *Talde eragilea*: 8 eta 12 arteko irakasle talde batek osatuko du. Bertan parte hartuko dute Zuzendaritzako kideren batek gutxienez, hizkuntzetako irakasleek eta ziklo bakoitzeko ordezkariak. Horrez gain, beste irakasleren batek ere parte hartu ahal izango du. Talde honek ikasturte osoan zehar hainbat saio egingo ditu (8 saio izatea aurreikusten da) eta saio batetik bestera zeregin zehatzak ere izango ditu. Beraien ardura izango da gaia garatzea, erabakiak har daitezen oinarriak lantzea eta materiala prestatzea, besteak beste.

- *Irakasle taldea*: eragileena baino talde handiagoa izango da eta, hainbat kasutan, klaustro osoak ere osatuko du. Ikasturtean zehar lau saio egingo dituzte eta saio batetik bestera praktikara eramateko jarduerak ere eskainiko zaizkie.

Ikastaroa *parte hartzailea eta praktikara bideratutakoa* izango da.

Ikastetxeen ezaugarrietara egokitu beharko da egiten den lana.

Berritzeguneekin koordinatuta lan egingo da. Berritzeguneetatik hainbat arlotan lan egiten da ikastetxeekin eta Hizkuntza Proiektua zein Hizkuntza Trataera Integrala ere hor kokatzen dira. Hala, koordinazioa erabatekoa izango da, Berritzeguneek jarritako irizpideak eta norabidea erabat zainduz.

Planteatutako helburuak lortzera bidean, ondorengo eduki orokorrak landuko dira:

- Hizkuntza Trataera Bateratuaren oinarriak
- Heziberri eta Hizkuntzen Europar Markoa: mailak eta trebetasunak
- Irteera profilak
- Ikuspegi komunikatiboen lanketa
- Testu moten lanketa eta nola uztartu beroiek trebetasun ezberdinen irakaskuntzarekin
- HTBren baitan irakasleek modu koordinatuan lan egiteko pausoak
- Ikastetxeetako proiektuen edo ikasgaien moldaketa Hizkuntzen Trataera Integralerantz
- Testu eredugarrien bilaketa eta lanketa
- Ebaluazio errubrikak